## Moderniser Canopia pour l’adapter aux enjeux du territoire

**Le Syndicat Mixte Bil Ta Garbi assure le traitement et la valorisation des déchets pour la Communauté d’Agglomération Pays Basque et la Communauté de Communes du Béarn des Gaves, soit 211 communes. Chaque année plus de 80 000 tonnes d’ordures ménagères sont prises en charge.**

Le Syndicat oriente chaque type de déchet vers la solution la plus adaptée, grâce à 3 grands équipements complémentaires :

- **Canopia (Bayonne)** : traite et valorise les ordures ménagères résiduelles, trie les emballages et papiers et produit de l’énergie (chaleur, électricité, biométhane).
- **Mendixka (Charritte-de-Bas)** : valorise les biodéchets, produit du compost et assure le traitement par enfouissement des déchets en dernier recours.
- **Zaluaga (Saint-Pée-sur-Nivelle)** : assure l’enfouissement des déchets en dernier recours.

Moderniser Canopia, sans agrandir le site, permettra d’adapter son fonctionnement au cadre réglementaire, aux besoins du territoire et à la transition écologique.



## Canopia modernizatzea, lurraldeko erronketara egokitzeko

**Bil Ta Garbi Sindikatu Mistoak Euskal Hirigune Elkargoaren eta Béarn des Gaves Herri Elkargoaren hondakinen tratamendua eta balorizazioa bermatzen du (guztira 211 herri). Urtero, 80.000 tona baino gehiago etxeko hondakin bildu eta tratatzen ditu.**

Sindikatuak hondakin mota bakoitza irtenbiderik egokienera bideratzen du, elkarren osagarri diren 3 azpiegitura nagusiri esker:

- **Canopia (Baiona)**: etxeko hondakin arruntak tratatu eta balorizatzen ditu, estalkiak eta paperak sailkatzen ditu, eta energia ekoizten du (beroa, elektrizitatea eta biometanoa).
- **Mendixka (Sarrikotapea)**: biohondakinak balorizatzen ditu, konposta ekoizten du eta, azken aukera gisa, hondakinak zabortegian lurperatuz tratatzen ditu.
- **Zaluaga (Senpere)**: azken aukera gisa, hondakinak zabortegian lurperatuz tratatzen ditu.

Canopia modernizatzeak, instalazioak handitu gabe, haren funtzionamendua arau-esparrura, lurraldeko beharretara eta trantsizio ekologikora egokitzea ahalbidetuko du.

## 213 communes directement concernées

## 213 herri zuzenean inplikatuak







S’informer, contribuer jusqu’au 27 octobre
Informazioa jaso eta ekarpenak egin, urriaren 27ra arte
**biltagarbi.com**

canopia | bil ta garbi

Stratis (stratis-communicationpublique.fr) • 09/26 • Crédit photos : Stratis / Bil Ta Garbi / Valeco / Shutterstock • Imprimé sur papier recyclé • Ne pas jeter sur la voie publique

UNITÉ DE VALORISATION ÉNERGÉTIQUE ET ORGANIQUE

# CANOPIA SE MODERNISE

ENERGIA ETA MATERIA ORGANIKOA BALIOZTATZEKO UNITATEA

# CANOPIA BERRITZEN ARI DA

**Concertation**
28 sept > 27 oct 2026

**Kontzertazioa**
2026ko irailaren 28tik urriaren 27ra

## CONCERTATION MODE D’EMPLOI

## KONTZERTAZIOA - NOLA PARTE HARTU




S’informer, contribuer jusqu’au 27 octobre
Informazioa jaso eta ekarpenak egin, urriaren 27ra arte
**biltagarbi.com**

canopia | bil ta garbi

## 3 objectifs prioritaires et complémentaires

**Optimiser la valorisation des déchets**, en réduisant au maximum les refus ultimes destinés à l'enfouissement.

**Maximiser la sobriété et la production énergétique** à partir des déchets résiduels.

**Maîtriser l'ensemble des opérations et le coût de traitement**, dans le cadre d'un marché public de performance.

**Moderniser Canopia, ce n'est pas traiter plus de déchets. C'est mieux traiter les déchets résiduels du territoire, pour privilégier la valorisation et réduire l'enfouissement au strict minimum.**



**90 %**

de déchets valorisés avec le projet (contre 78% actuellement)

Proiektuarekin, hondakinen **%90** balorizatuko da (gaur egun %78)



## Lehentasunezko 3 helburu osagarri

**Hondakinen balorizazioa optimizatzea**, zabortegian lurperatu beharreko azken hondakinen kopurua ahalik eta gehien murriztuz.

**Energia-kontsumoa ahalik eta gehien murriztea eta energia-ekoizpena maximizatzea**, hondakin arruntetatik abiatuz.

**Eragiketa guztiak eta tratamendu-kostua kontrolatzea**, errendimendu-kontratu publiko baten esparruan.

**Canopia berritzea ez da hondakin gehiago tratatzea. Lurraldeko hondakin arruntak hobeki tratatzea baizik, balorizazioa lehenesteko eta zabortegian lurperatzea ahalik eta gehien murrizteko.**

## Concertation, mode d'emploi

**Du 28 septembre au 27 octobre 2026, le Syndicat Bil Ta Garbi engage une concertation sur la modernisation de l'UVEOR Canopia.**

Durant cette période, vous pouvez contribuer, poser des questions et échanger avec les acteurs du projet. Toutes les contributions recueillies seront analysées et restituées dans un bilan rendu public à l'issue de la concertation. L'objectif est d'enrichir les études et les solutions techniques envisagées. Cela fixera les points de vigilance du dialogue compétitif engagé avec les potentiels opérateurs.

## Nola parte hartu kontzertazioan

**2026ko irailaren 28tik urriaren 27ra, Bil Ta Garbi Sindikatuak Canopia Energia eta Materia Organikoa Balorizatzeko Unitateak berritzeko kontzertazio-prozesua abiatuko du.**

Epe horretan, ekarpenak egin, galderak pausatu eta proiektuko eragileekin hitz egin eta iritziak partekatu ahal izango duzu. Jasotako ekarpen guztiak aztertu eta kontzertazioaren amaieran argitaratuko den txosten batean bilduko dira. Helburua aurreikusitako ikerketak eta aterabide teknikoak aberastea da. Era berean, ekarpen horiek elkarrizketa lehiakorrean parte hartuko duten balizko eragileekin landu beharreko arreta-puntuak zehaztuko dituzte.

### Comment participer

- En ligne : registre numérique sur biltagarbi.com
- Registres papier dans les 10 lieux officiels (aux horaires d'ouverture au public) :
  - Siège du Syndicat Mixte Bil Ta Garbi à Bayonne
  - Siège de la Communauté d'Agglo-mération Pays Basque
  - Siège de la Communauté de Communes du Béarn des Gaves
  - Mairies de Bayonne, Boucau, Lahonce, Mouguerre, Saint-Pierre-d'Irube, Tarnos et Saint-Martin-de-Seignanx
- Lors des rendez-vous et temps d'échanges

*Dossier de concertation et synthèse du projet consultables sur biltagarbi.com et dans les 10 lieux officiels.*

### Nola parte hartu:

- Online: erregistro digitalaren bidez, www.biltagarbi.com webgunean
- Paperezko erregistroen bidez, 10 leku ofizialetan, herritarrei zabalik dauden orduetan:
  - Bil Ta Garbi Sindikatu Mistoaren egoitzan, Baionan
  - Euskal Hirigune Elkargoaren egoitzan
  - Béarn des Gaves Herri Elkargoaren egoitzan
  - Baiona, Bokale, Lehuntze, Mugerre, Hiriburu, Tarnose eta Saint Martin de Seignanx-eko Herriko etxeetan
- Hitzorduetan eta truke-saioetan

*Kontzertazio-dosierra eta proiektuaren laburpena www.biltagarbi.com webgunean eta 10 leku ofizialetan kontsulta daitezke*

## Des grands rendez-vous pour échanger
## Elkarrizketarako hitzordu nagusiak

### 2 réunions publiques

- 30 septembre, 18h-20h
  Salle Albizia, Bayonne
- 19 octobre, 18h-20h
  Espace culturel Larreko, Saint-Pée-sur-Nivelle

### 2 jendaurreko bilkura

- Irailaren 30ean, 18:00-20:00
  Albizia aretoan, Baionan
- Urriaren 19an, 18:00-20:00
  Larreko kultur gunean, Senperen

**Disponible en ligne - Online ere eskuragarri:**
Live et replay sur la chaîne Youtube officielle de Bil ta Garbi
Zuzeneko emanaldia eta geroko ikus-entzunaldia Bil Ta Garbiren YouTube kanal ofizialean

**3 journées Portes Ouvertes**

- Mendixka : 7 octobre, 14h-16h, Charritte-de-Bas
- Canopia : 14 octobre (14h-16h) et 24 octobre (9h-12h), Bayonne

**2 stands mobiles**

- Médiathèque Sainte-Croix, Bayonne 30 septembre, 8h30-12h30
- Centre commercial Leclerc, Bayonne 17 octobre, 11h-18h

**2 ateliers thématiques sur inscription**

Ouverts uniquement aux représentants d'organismes socio-économiques et associatifs du territoire

- Enjeux et objectifs de la modernisation
  1er octobre, 17h30-19h
- Cadre de vie et insertion du projet
  21 octobre, 17h30-19h

***Demandes d'inscription :***
*concertation.canopia@biltagarbi.fr avant le 24 septembre pour l'atelier 1 et le 14 octobre pour l'atelier 2.*

**Ate irekien 3 jardunaldi:**

- Mendixka: urriaren 7an, 14:00-16:00, Sarrikotapea
- Canopia: urriaren 14an, 14:00-16:00, eta urriaren 24an, 9:00-12:00, Baiona

**2 informazio-gune mugikor:**

- Sainte Croix mediatekan, Baionan: irailaren 30ean, 8:30-12:30
- Leclerc merkataritza-gunean, Baiona iparraldean: urriaren 17an, 11:00-18:00

**2 gaikako tailer, aurretiko izen-ematearekin:**

Lurraldeko erakunde sozioekonomiko eta elkarteetako ordezkarientzat soilik:

- Modernizazioaren erronkak eta helburuak: urriaren 1ean, 17:30-19:00
- Bizi-ingurunea eta proiektuaren integrazioa: urriaren 21ean, 17:30-19:00

***Izena emateko:***
*concertation.canopia@biltagarbi.fr*
*1. tailerrerako: irailaren 24a aitzin*
*2. tailerrerako: urriaren 14a aitzin*